

FORU DEKRETUA, udalen hirigintza-plangintza egiteko laguntzen araubidea arautzen duena.

ARRAZOIEN AURKEZPENA

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak, 20. artikuluan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari agintzen dio udalerrietako hirigintza-jarduerari laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea, bereziki, hirigintza-plangintzako tresnak idazteko. Hirigintza-plangintza prestatu eta aplikatzearen arloan administrazioen arteko lankidetzak arautzen duen uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretuaren babesean aspaldidanik ematen duen laguntza ekonomikoa da.

Indarrean sartu zenetik ia 20 urte igaro direnean, nahitaezkoa da araudi hori berrikustea, egungo beharretara egokitzeko, laguntza-sistema arinagoa eta eraginkorragoa behar baitute. Izan ere, uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretutik eratorritako laguntza-sistemak administrazio-prozesu konplexu bat dakar, urte anitzeko gastuetarako konpromisoak eta aurrekontu-egozpenak dakartza berarekin, Udal Plan Orokorrek idazteko eta onartzeko prozesuen arabera; horiek ez dira beti betetzen, eta ondorioz, onartutako ekonomia-plangintzak aldian-aldian eguneratzera behartzen dute, eta horrek atzerapena ekar dezake jada onartutako diru-laguntzak ordaintzerakoan. Urteetako praktikak erakutsi du sistema ez dela oso eraginkorra eta alferrikako izapideak alde batera utzi behar direla, eta, halaber, prozedura sinpleagoekin eta berehalakoagoekin ordezkatu behar direla, aurrekontua modu hobean eta eraginkorragoan gauzatzen eta kontrolatzen saiatuz.

Hori dela-eta, foru-dekretu honek laguntza horiek emateko eta ordaintzeko prozesu guztia azkartu nahi du. Horretarako, egungo sistema urteko dirulaguntzen deialdiekin ordeztzen da, eta deialdi horiek banakako ebaluazio-araubidearen bidez ebatziko dira. Horrela, laguntzak modu zuzenagoan eman eta ordaindu ahal izanen dira, udalek foru-dekretuan aurreikusitako diruz lagun daitezkeen faseetako bakoitza betetzen dela egiaztatu ondoren. Aldi berean, udal-plangintza egiteko eta izapidetzeko prozesuari bultzada eman nahi zaio, bizkortasun handiagoa lortuz, alferrikako atzerapenik gabe, udalei etengabeko finantzaketa progresiboa lortzeko aukera emanez.

Ildo horretan, 145/2002 Foru Dekretuak bezala, udalek jaso beharreko diru-laguntzen zenbateko osoa tartetan edo zatitan banatzen da; horiek bat datoz hirigintza-plangintzako tresnak izapidetzeko legez aurreikusitako prozedura-izapideekin. Horri dagokionez, 145/2002 Foru Dekretuan ezarritako diruz lagun daitezkeen tartekak aldatzen dira, eta, horrela, denboran zatituagoak izanen diren laguntzak proiektatzen dira, orain arte diru-laguntzarik gabe egon den udal-plangintzaren behin betiko onarpen-fasea barne.

Foru Dekretuak gehitzen duen beste berrikuntzetako bat jasoko diren laguntzen gehieneko zenbatekoak finkatzea da, udalerrien populazioaren, hedaduraren eta konplexutasunaren arabera ezarrita, nahiz eta zenbateko horiek aldatu ahal izanen diren urteko dirulaguntza-deialdi bakoitzean.

Azken finean, arautze berri honen bidez, prozedura ordenatuagoa, arinagoa eta eraginkorragoa lortu nahi da, dagozkion dirulaguntzak errazago lortu ahal izateko, gehiegizko izapideak kenduta, administrazioa sinplifikatze aldera.

Horiek horrela, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariaren proposamenez, Nafarroako Kontseiluaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak XXXXXXXX (e)(a)n egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorri

ERABAKI DUT:

1. artikulua. Xedea.

1. Foru-dekretu honen xedea da Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko araubidea arautzea, udal-plan orokorrak egiteko edo berrikusteko lanak finantzatzeko.

Halaber, laguntzak emanen zaizkie Nafarroako udalei plan bereziak egiteko, plan horien xedea izanik hirigune historikoen antolamendu integrala egitea, hirigune horien jarduera-eremuak gutxienez 5 hektareako azalera hartzen badu, lurzorua arintzeko, zuzkidura publikoak sortzeko, auzoak onbideratzeko, mugikortasun- edo estetika-arazoak konpontzeko, hiria berroneratzeko edo berritzeko jarduketak arautzeko, edo antzeko beste xede batzuetarako. Espazio horiek bat etorri ahal izanen dira etxebizitzaren arloan indarrean dagoen araudiak araututako lehentasunezko birgaitze-eremuekin.

2. Salbuetsita geratzen dira indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren aldaketak eta hirigintza-plangintzako gainerako tresnak.

3. Ez dira beste diru-laguntza batzuen xede izanen honako hauek:

3.a) Udal Plan Orokorraren edo Plan Bereziaren izapideak amaitu gabe dituzten udalerrien eskabideak (baldin eta beste bat idazten hasi nahiko balute), salbu eta aurrez jasotako zenbatekoak eta zegozkien laguntzak ordaindu zirenetik aurrerako berandutze-interesak itzultzen badituzte.

3.b) Azken 8 urteotan Udal Plan Orokorra behin betiko onartua duten udalerrien eskaerak.

3.c) Dagozkion zerbitzu-kontratua sinatu zenetik 6 urte igaro ondoren, dagozkion udal-plan orokorra edo plan berezia behin betiko onartu ez bada.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

Foru-dekretu honek aipatzen dituen dirulaguntzak dekretu honetan bertan aurreikusitakoak arautuko ditu, eta, osagarri gisa, Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak eta dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren gainerako arauak.

3. artikulua. Onuradunak.

1. Laguntza hauen onuradun izan daitezke Udal Plan Orokorra edo Plan Berezia egiteko edo berrikusteko prozesua izapidetzen hasi diren Nafarroako udalak, eta 5. artikuluan aurreikusitako prozeduraren faseren bat amaitu badute.

2. Foru-dekretu honetan araututako laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izanen da aldeztatik Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatzea hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuarekin. Hitzarmen horretan, besteak beste, Udal Plan Orokorra edo Plan Berezia egiterakoan kontuan hartu beharreko helburuak eta irizpideak ezarriko dira, eta, hala badagokio, Jarraipen Batzordeko kideak izendatuko dira, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitako baldintzetan.

3. Udal onuradunek Dirulaguntzei buruzko Foru Legean oro har adierazten diren betebeharrak bete beharko dituzte, baita deialdi bakoitzaren oinarri arautzaileetan eta aplikagarria den gainerako araudietan ezartzen direnak ere.

4. artikulua. Diruz lagundu daitekeen gastua.

1. Diruz lagundu daitekeen gastua izanen da Udal Plan Orokorra eta Plan Bereziak idazteko lanak burutzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak kontratatzearen ondoriozko ordainsarien kostua (BEZa barne).

Gehienez ere, dagozkion zerbitzu-kontratuen esleipen-prezioaren % 80ko dirulaguntza emanen da, betiere hurrengo artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoak gainditzen ez badira.

2. Laguntzak zatika emanen eta ordainduko dira, 5. artikuluan ezarritako tresnak lantzeko eta izapidetzeko fase bakoitza amaitzean, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiko titularrak ebazpena eman ondoren. Horretarako, fase bakoitzak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legeriak eskatutako dokumentuekin osatuta egon beharko du.

3. Laguntzak emanen eta ordainduko dira haien helburua bete dela justifikatu ondoren, 9. artikuluan eskatzen den baldintzetan. Dirulaguntza jaso dezaketen lanak dagokion deialdia argitaratzen den aurrekontu-ekitaldian edo aurreko ekitaldietan egindakoak izan daitezke.

5. artikulua. Zenbatekoak eta mugak.

1. Udal Plan Orokorra egiteko fase bakoitzerako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak ezin izanen dira ondoren zerrendatzen diren mugak baino handiagoak, biztanleria-tarte horien arabera:

Ondorengo biztanleria-kopurua duten	Gehieneko zenbatekoak faseka (BEZa barne)					Gehieneko zenbatekoa (BEZa barne)
	% 10 Udalak LOEE onartzea	% 10 LuABk LOEE	% 25 Hasierako onarpena	% 25 Behin-behineko	% 30 Behin betiko	
- 1.000 bizt.	8.000 €	8.000 €	20.000 €	20.000 €	24.000 €	80.000 €
1.001 - 3.000 bizt.	11.000 €	11.000 €	27.500 €	27.500 €	33.000 €	110.000 €
3.001 - 5.000 bizt.	14.000 €	14.000 €	35.000 €	35.000 €	42.000 €	140.000 €
5.001 - 10.000 bizt.	17.000 €	17.000 €	42.500 €	42.500 €	51.000 €	170.000 €
10.001 biztanletik gora	20.000 €	20.000 €	50.000 €	50.000 €	60.000 €	200.000 €

Zenbateko horiek % 10 igo ahal izanen dira kontzeptu horietako bakoitzeko:

- Udalerri konposatuak edo biztanlegune bereiziko 3 hirigune edo gehiago dituztenak.
- 70 km²-tik gorako azalera.

Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera Udal Plan Orokorra behin betiko onartu ondoren testuategina lantzea eskatu den kasuetan, ezin izanen da eskatu azken fase horretarako aurreikusitako zenbatekoak ordaintzea, harik eta testuategina entregatu eta organo eskudunak egokia dela egiaztatu arte.

2. Plan Bereziak lantzeko fase bakoitzerako gehieneko dirulaguntzak Plan Bereziaren azterketa-eremuaren azaleraren arabera ezarriko dira, eta ezin izanen dute jarraian aipatzen diren mugak gainditu:

PBaren esparrua	Gehieneko zenbatekoak faseka (BEZa barne)		Gehieneko zenbatekoa (BEZa barne)
	% 50 Hasierako onarpena	% 50 Behin betiko onarpena	
5-10 bizt.	25.000 €	25.000 €	50.000
10-20 bizt.	37.500 €	37.500 €	75.000
20 biztanletik gora	50.000 €	50.000 €	100.000

3. Aurreko atalean aurreikusitako gehieneko dirulaguntzak ezin izanen dira zerbitzu-kontratuaren esleipen-prezioaren % 80 baino handiagoak izan.

4. Udal eskatzaileek justifikatutako zenbatekoak aurreko ataletan maximotzat adierazitakoak baino txikiagoak badira, jaso beharreko laguntzen zenbatekoak murriztu egingen dira justifikatutako zenbateko horiek gainditzen dituzten neurri berean.

5. Udalek metatuta eskatu ahal izanen dituzte laguntzak egikaritu diren bi fasetarako edo gehiagotarako; halakoetan, laguntza horien zenbatekoa fase bakoitzari dagozkion zenbatekoen batura izanen da.

6. Aurreko deialdietan laguntza jaso duten faseak ezin izanen dira berriro diruz lagundu beste deialdietan.

6. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna.

Foru-dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izanen dira xede bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, horien izaera eta horiek ematen dituen administrazioa edo erakundea edozein dela ere; betiere, guztien baturak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badu.

7. artikulua. Prozedura.

1. Dirulaguntzak emateko prozedura urteko deialdi publikoaren bidez hasiko da, eta banakako ebaluazio-erregimenean izapidetuko da.

2. Dirulaguntzen eskariak 5. artikulua aipatzen dituen Udal Plan Orokorren edo Plan Berezien izapidetze-fase bakoitza amaitu ondoren aurkeztuko dira, artikulua horren 4. zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe. Berariaz adierazi beharko dira zer fasetarako eskatzen den finantzaketa eta zenbat eskatzen den, eta horiekin batera 9. artikuluan eskatzen den dokumentazioa erantsi beharko da.

3. Eskariek ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, edo eskatutako agiriak aurkezten ez badituzte, udal eskatzaileari galdeginen zaio hamar egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera. Aurkezpen-datatzat hartuko da 9. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia erregistroan sartzen den eguna.

4. Aurkezteko hurrenkeraren arabera ebatziko dira eskariak, eta dagokion aurrekontu-kreditua agortu arte emanen dira. Aurrekontu-kontsignaziorik ez egoteagatik aintzat hartuko ez diren eskariak hurrengo deialdietarako hartuko dira kontuan, eta, gainera, laguntza eskatu zen deialdiaren eskaera-data errespetatuko da.

5. Aurrekontuan dagoen diruak baldintzatuko du foru-dekretu honetan ezarritako dirulaguntzak ematea.

8. artikulua. Ebazpena.

1. Lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak emanen edo ukatuko ditu dirulaguntzak. Ebazpen horrek zehaztuko du emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

2. Izapidetzeko organo eskudunaren erregistroan eskari osoa sartu eta hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da ebazpena. Epe hori igarota, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaria ezetsi egin dela ulertu ahal izanen da.

9. artikulua. Dokumentazioa.

1. Udalek aurkeztuko dituzte dirulaguntzetarako eskari guztiak beteta eta Alkatetzak sinatuta aurkeztuko dira ondoren aipatzen diren agiri horiekin batera:

- a) Eskari-idazkia, dirulaguntzaren xede izanen den Udal Plan Orokorra edo Plan Berezia idazteko fasea edo faseak eta eskatzen den zenbatekoa zehaztuko dituen.
- b) Udal Idazkaritzak emandako ziurtagiria, dirulaguntza eskatzea erabakitzen duen udal-ebazpena jasoko duena.
- c) Udal Idazkaritzak emandako ziurtagiria, Udal Plan Orokorra edo Plan Berezia idazteko lanak esleitzeko hartutako udal-erabakiari buruzkoa, idazle-taldeak sinatutako zerbitzuen kontratuaren kopia, eta horren oinarri izan zen baldintza-agiriaren kopia, aurreko deialdietan aurkeztu ez bada. Justifikatutako arrazoiak tarteko, jatorrizko kontratua aldatu behar bada, kontratu gehigarrien edo osagarrien kopia aurkeztu beharko da.
- d) Egindako gastuen fakturak eta diruz lagundu daitezkeen lanen ordainketen justifikazioa.
- e) Udal Idazkaritzaren ziurtagiria, xede bererako jasotako diru-laguntzei buruzkoa.
- f) Udal Alkatetzaren erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako debekurik ez duela adieraziko duena.
- g) Dirulaguntzen deialdien oinarri arautzaileek finka ditzaketen beste edozein agiri.

10. artikulua. Dirulaguntzak itzultzea.

Bidezkoa izanen da diru-laguntzak baliogabetzea, baita jasotako zenbatekoak itzultzea eta zenbateko horiek ordaindu zirenetik sortutako berandutze-interesa eskatzea ere, Dirulaguntzei buruzko Foru Legean aurreikusitako kasuetan eta prozedurari jarraikiz.

Xedapen Iragankor Bakarra. Izapidetze-tresnak.

1. Indargabetuta geratzen dira uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretuaren babesean izenpetutako lankidetzaz hitzarmenetako klausulak, baldin eta izapidetzen ari diren Udal Plan Orokorren edo Plan Berezien finantzaketa ekonomikoari buruzkoak badira (145/2002 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, hirigintza-plangintza prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzaz arautzen duena).

Aurreikuspen hori ez zaie aplikatuko Foru Dekretu honen 5. artikuluan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoak baino handiagoak konprometitu diren lankidetzaz hitzarmenei; horiek indarrean jarraituko dute baldintza guztietan. Hala ere, konpromiso ekonomiko horiek automatikoki deuseztatuko dira, baldin eta foru-dekretu hau indarrean sartzen denetik gehienez ere 4 urteko epean udal-plan orokorrak edo dagozkien plan bereziak behin betiko onartzen ez badira.

2. Ondoriorik gabe geratzen dira lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak izapidetzen ari diren Udal Plan Orokorrek lantzeko emandako ebazpenen bidez onartu diren eta oraindik ordaindu gabe dauden dirulaguntzen emakidak, aurreko ataleko bigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik sortu gabe.

3. Aurreko ataletan adierazitakoaren eraginpean dauden udalerriek foru-dekretu honetara biltzea eskatu ahal izanen dute; kasu horretan, aplikagarri zaien dirulaguntzatik lankidetzaz hitzarmen horietan oinarrituta egindako ordainketak deskontatuko zaizkie.

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Hirigintza-plangintza prestatu eta aplikatzearen arloan administrazioen arteko lankidetzaz arautzen duen uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretua indargabetuta geratzen da.

2. Halaber, indargabetuta geratzen dira legegintzako foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken Xedapenetan lehenbizikoa. Gehieneko zenbatekoak aldatzea.

Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiko titularrari ahalmena ematen zaio dirulaguntzaren urteko deialdi bakoitzean 5. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoak aldatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera sartuko da indarrean.